

HASI GARA KAFE ANTZOKIA ERAIKITZEN!

2002.eko urrian Landakoko hiltegi zaharra ustiatzeko lehiaketa irabazi genuenetik urtebete be igaro ez dan irail honetan, hasi gara Durangoko Kafe Antzokia eraikitzen.

Lanak emon dauskuz gure aurrekontuagaz Kafe Antzoki txukun bat diseinatzeak, bai gero! Baina azkenik hiltegi zaharraren hormak lurrera doaz astiro-astiro, ondoren lau-bost metro haruntzago barriz altzatzeko. Izan be, Kafe Antzoki zabala behar dogu mota guztietako ikuskizun, elkarte eta jendeari aterpe emoteko.

Ahalegin haundia eskatzen dau era honetako proiektuak. Ahalegin mota ezbardin asko esango genduke, horreen artean ahalegin ekonomikoa. Durangalde zabaletik jende ugari hurreratu da partizipazioak eskuratzera, eta badakigu ondino asko dirala etortzekoak diranak,

tartetxo bat ataratzen dabenean.

Oraintxe da ba, tartetxo hori atara, eta partizipazioa eskuratzera etortzeko sasoia, aurrekontua guztiz osatzeko azken bultzadatxoaren preminan gagoz-eta. Urriaren lean egingo dogu Durangoko Kafe Antzokiko akzinodunen lehenengo batzarra, Durangoko San Agustin Kulturgunean iluntzeko zazpietatik aurrera. Hantxe ikusi gura zaituegu guztiak, bazkide egin zarienok eta egiteko zarienok, proiektua zetan dan azaldu gura dautsuegu-eta.

Eraikuntza lanak hasita dagoz, eta amaitu artean ez dago gelditzerik. Honezkero hiltegi zaharraren ezkinarriak ondo bilduta dagoz bazter batean eta barriz jasotzen diranean ez dira hiltegiarenak izango, Kafe Antzokiarenak baino. Udabarrirako baietz!



PARTIZIPAZINOAK ESKURATZEKO PROZEDURA

Partizipazioak eskuratu gura dauazanak BBK, Euskadiko Kutxa edo Ipar Kutxan diru-sarrerara egin behar dau (2003 partizipazioko).

BBK:

2095 0337 11 91-0447203-1

Euskadiko Kutxa:

3035 0014 66 014 0 04833 9

Ipar Kutxa:

3084 0017 67 630 0 11255 5

Kutxan diru-sarreraren agiria jasoko dau. Agiri horretan partizipazioa eskuratu gura dauen pertsonaren izen-abizenak eta nortasun agiriaren zenbakiak azaldu beharko dira.

Agiri horrekin BERBARO ELKARTEAren bulegora jo, bertan aurkeztu eta Durangoko Kafe Antzokia, S.L.ren partizipazioaren dokumentua jasoko dau, jabearen datuekin eta sinatuta.

Hilabete batzuren buruan partizipazioaren agiri ofiziala jasoko dau.

Uda topera! 2003

Joan zen ekainaren 30etik uztailaren 24ra, Durangaldeko haur eta gaztetxo asko eta asko batu ziren *Guezan Ba! Gazte Taldeak* antolatutako *Uda Topera!* udaleku irekian.

Hizkuntza normalkuntzarantz

Astiaaldia hizkuntza normalkuntzarako tresna egokia izanik, aurten ere garrantzitsua iruditu zaigu proiektu honetan parte hartzea. Eta honela, hilabete batean zehar, euskaraz eta euskal giroan jolasteko eta dibertitzeko aukera izan dute Durangaldeko 350 bat haur eta gaztetxok 50 laguneko lantaldeak gidatuta.

3-14 urte bitarteko haur eta gazteek parte hartu dute, eta adinaren arabera 3 taldetan banatu izan dira: *Txiki Txoko* (3-6 urte), *Hiri Kanpamendua* (6-10 urte) edo *Kiroletan* (10-14 urte) programetan.

Zirkoa, Anbotoko Mari eta euskal selekzioa

Aurten aukeratutako gai nagusiak, zirkoaren mundua, euskal mitologia eta euskal selekzioa izan dira. Era honetan, haur eta gaztetxoen ekintza guztiak (irteerak, jaialdiak, olinpiadak, tailerrak...) gai hauen inguruan burutu dira, ludikotasuna didaktikotasunarekin lotuz;

Txikienak, zirkoaren mundu magikoan murgilduta ibili dira, *Patxiku* pailazoa eta *Tximu* tximinoa lagun izan

dituztela. Hauen eskutik, Kortezubin dagoen Basondo animalien parkea ere ezagutu dute.

Hiri Kanpamenduko umeek, Durangaldeko Dama eta bere lagunen istorioak gertutik ezagutzeko aukera izan dute. Urkiolatik Anbotoko Mariren egoitza hurbilgotik ezagutu dute eta Baltzolako koban bertan ere, Mari eta bere lagunen istorioak entzun izan dituzte, isil isilik.

Nagusienek berriz, Euskal Selektzioa defendatuz, piragua lasterketa egin dute Garaioko ur geldoetan, besteak beste.

Guztiok ere ederto pasatu dugu euskeraz eta euskararen alde; dena dela, emaitzek lanean jarraitu behar dugula erakusten digute. Beraz, eskerrik asko denoi eta datorren urtera arte!



14. HAUR LITERATUR ARETOA ABIAN

Haur Literatur Aretoa, Berbaro Elkarteak sortutako lehenengo ekintza da. Urtero burutzen den ekimen honen helburu nagusia, haur eta gazteentzako irakurtzeko zaletasuna bultzatzea da. Horretarako, adin bakoitzera egokitutako ekintzak prestatzen ditugu: idazleekin saioak, ipuin kontaketak, ilustratzaileekin saioak, antzerkia...

Hasi gara 14. Haur Literatur Aretoko antolaketaren lehen urratsak ematen. Iaz Durangaldean ia 3.000 haurrek parte hartu zuten eta, aurten ere, beste horrenbeste izatea espero dugu, edo gehiago. Laster izango duzue gure berri.

ASTIALDIKO ZUZENDARI IKASTARO LABURRA

Topagunea, Euskara Elkarten Federazioak, Astialdiko Zuzendari Ikastaroa normalean baino denbora gutxiagoan egiteko aukera ematen digu Euskara Elkarteetako kideoi, Urtxintxa Astialdiko Eskolarekin adostu ostean. Ikastaroa, abendua, martxoa eta apirilean gauzatuko da era intentsiboan.

Ikastaroan parte hartzeko baldintzetako bi, Astialdiko Begirale Ikastaroaren jabe izatea eta 21 urte beteta edukitzea dira. Dena dela, informazio gehiago nahi izanez gero, jo ezazu Berbaroko bulegora edo deitu telefonoz zenbaki honetara: 946202540.

irratia



Berbarok sortutako Durangoko Herri Komunikabideak elkarteak bere proiektua osatzeko, Elorriko Udalak, euskeraren normalizazinarako komunikabideak daukeen garrantzia ikusirik, proiektu horrekin bat egin eta beharrezko bitartekoak ipini zituan 2003an irratia aireratzeko.

Azken urte honetan egitasmoa mamitzen ibili eta gerò, uztailean irratirako preminazko obrak egiten hasi ziran Arriola Kultur aretoko bigarren solairuan.

Urriaren aireratuko da Anboto Irratia eta nahiz eta egoitza nagusia Elorriko euki, Durangalde osora zabalduko da. 24 orduko programazino propioa izango dau, nahiz eta hasieran zuzeneko ordu bi baino ez izan. Horretarako teknologia digitala erabiliko dogu. Gaur egun irratia digitalek emoten dabe aukera gehien eta kalitate onena.

Gura helburua herritarrendako eta herritarrek eurek eginiko irratia izatea da. Horretarako hainbat kolaboratzaile izango dogu, guztien ekarpenak jaso eta zabaltzeko.

Zuen gustuko irratia izango dalakoan, Urriaren erdialdetik aurrera Anboto Irratia entzutera gonbidatzen zaitugu.



Euskaldun zaharron laguntza behar dugu!

Berbalagun moduan ezagutuko da hemendik aurrera Durangoko euskaldun zahar eta berriak harremanetan jarriko dituen proiektua. Egitasmo hau Abarrak AEK Euskaltegiak eta Berbaro Elkarteak jarriko dute martxan.

Berbalagun inoiz euskara ikasi edota erdibidean geratu direnentzat da, gaur egun ikasten eta elkarrizketa bat izateko maila nahikoa dutentzat zuzenduta dogu, hain zuzen ere. Euskaldun zaharren partehartzea beharrezkoa da *Berbalagun* egitasmoa aurrera ateratzeko, alde batetik euskaldun berriei laguntzeko beraien euskara hobetzen, eta beste aldetik euskaldun zahar eta berriak euskaraz elkar bizitzen ikas dezagun.


Esan bezala zure laguntza behar dugu, proiektu honetan parte hartzeko deitu Berbaroko 94 620 19 18 telefonora.

Ekitaldiak

-Urriak 30, osteguna, 20:30etan Berbaro tabernan KIKE AMONARRIZ, ASISKO URMENETA eta ANTON OLARIAGAREN eskutik "euskaraz lardaxkatzeko manerak" hitzaldi informala.

-Azaroak 6, osteguna, 20:30etan Berbaro tabernan RAMON AGIRRE aktore ezagunaren eskutik "Zazpi gezur txiki" ikuskizuna: antzerkia, musika, umorea,...

-Azaroak 27, osteguna, 20:30etan Berbaro tabernan ASIER SERRANO. Musikari eta idazle eibartarrak Lorelei taldearekin disko bi kaleratu ondoren, bere bakarkako lehen diskoa, "ez esan inori", aurkeztuko du.



-Abenduak 28, igandea, 20:30etan Berbaro tabernan TXUMA MURUGARRENEK, bere bakarkako hirugarren lana, "gauak, neskak eta mailetak" aurkeztuko du zuzeneko emanaldian.

-Abenduak 30, asteartea, 20:30etan San Agustin Kultur Gunean URTEKO AZKEN BERTSO SAIOA. Ohitura dugun lez, abenduaren 30eko bertso saio honekin emango diogu bukaera 2003ko gure kultur programazari. Aurrerago zehaztuko dizuegu zein bertsolarik parte hartuko duten.

larrosa

Durangoko alkateari emango diogu larrosa oraingoan. Izan ere, udal hauteskundeak egin ostean birritan batu da udalbatza eta bietan ere, euskara izan da erabili duen hizkuntza nagusia.



DURANGO
Udala · Ayuntamiento

Euskararen alde lanean dihardugun eragileok alperrik egingo ditugu mila kanpaina eta proiektu normalizatzaile, gero herri-administrazioko agintariek eguneroko hizkuntza gaztelera dela erakusten badute. Esan bezala, larrosa emango diogu alkateari euskarari prestigio eta indarra ematen lagundu duelako.

● Jaietan laguntza behar dugu

San Fausto jaietan bi txosnetan turnoak bete behar ditugu: bata Antzokia egiteko dirua lortzeko, eta bestea, Anbotori laguntza emateko. Prest zaude hiru orduko txandatxo egiteko! Ba, deitu Berbarora 94 620 19 18 telefonora eta eman izena.

● Merkataritza "Guk euskeraz"

Badira urte batzuk Durangoko Udalak kaleen izenak euskera hutsean ipintea erabaki ebala, eta bide seinaleak bietara. Geroago, hizkuntzaren normalizazio planari jarraituz, hitzarmenak izenpetu ebazan hainbat dendarekin merkataritza arloan euskeraren erabilera bultzetako.

Oraingoan, euskeraren normalizazioan beste urrats bat emon guran, komertzio edo saltokietako errotuluak euskalduntzeko dirulaguntzak emoteko ekimena jarri dau abian.

Informazioa gura dauenak Udaleko Euskera Zerbitzura jo dagiala. Telefonoa: 946030016.

● Berriaren alde lanean

Egunkariatik Berriara gure laguntzari esker. Egunkaria itxi zutenean hasita, Berbarokook Egunkariaren aldeko Herri Batzordeko kide izan gara. Elkarretaratzeak antolatu, diru aportazioak jaso eta akzioak egiten lagundu dugu, batez ere. Orain udalean mozioa aurkeztuko dugu gure udalak ere euskarazko egunkari bakarra babestu dezan.

arantza

Arantza beste udal batek eramango du oraingoan, Abadiñoakoak. Herri hori oso euskalduna dela ematen du, ezta? Ba ez da izango udalean agintzen duten politikariek esker! Abadiñoako herriaren barri ematen duen web orria zabaldu eta "Portal de empresas y servicios de Abadiño" ikusiko duzue. Gero bai, ingeleza eta frantsesa eta euskara aukeratu dezakezue.

